

TSUBA. Japoniako zaldunen ezaugarri bat

Tsuba bilduma Bilboko Arte Eder Museoan



Fernando García Gutiérrez, S.J.

**BILBOKO ARTE
EDERREN MUSEOA
MUSEO DE BELLAS
ARTES DE BILBAO**

Testu hau Creative Commons lizentziapean (mota: Aitortu–EzKomertziala-LanEratorririkGabe) argitaratu da (by-nc-nd) 4.0 international. Beraz, berau banatu, kopiatu eta erreproduzitu daiteke (edukian aldaketarik egin gabe), betiere, irakaskuntza edo ikerketarako helburuekin, eta egilea eta jatorria aitortuta. Ezin da merkataritza helburuetarako erabili. Lizentzia honen baldintzak <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/4.0/legalcode> webgunean kontsultatu daitezke.



Ezin dira irudiak erabili eta erreproduzitu, argazkien eta/edo lanen egile-eskubideen jabeek berariazko baimena eman ezean.

© Testuenak: Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Argazki-kredituak

© Bilboko Arte Ederren Museoa Fundazioa-Fundación Museo de Bellas Artes de Bilbao

Argitalpena:

B'07 : Buletina = Boletín = Bulletin. Bilbao : Bilboko Arte Eder Museoa = Museo de Bellas Artes de Bilbao = Bilbao Fine Arts Museum, 3. zenb., 2008, 101.-159. or.

Babeslea:



Japoniako zaldunen mundua

Japoniako Erdi Aroa (japonieraz *Chusei* izenez ezagutzen dena) XII. mendetik XVI.era bitartean izan zen, eta Kamakura (1185-1333) eta Muromachi (1333-1573) izeneko aldiak hartzen ditu barne. Historiografiaren zati batek aditzera ematen duenez, Erdi Aroa bat etorri zen sistema feudalaren garapenarekin, eta garai hori Japonian luzeagoa izan zen beste leku batzuetan baino, Aro Berria edo Modernoa ez baitzen XVII. mendera arte hasi. Horren arabera, Momoyama aldia (1573-1615) Erdi Aroaren barruan egongo litzateke, eta haren izena aldi feudal berantiarra izango litzateke. Hortaz, bada, lehenbiziko aldi bat izan zen, aldi feudal goiztiarra izenekoa, hiru fase hauek barne hartzen dituenak: Kamakura, Nambokucho, Muromachi aldiaren (1336-1392) lehen zatian, eta Muromachi¹.

Garai horretan garatu zen, hain zuzen, egile batzuek «*samurai* kultura»² deitzen dutena. Gempeiko gerra zibila 1180. urtetik 1185. urtera arte izan zen; eta aldi horrek trantsizio nabaria ekarri zuen, aurreko denboretan izan zen nolabaiteko lasaitasuna bukatu, eta denbora luzez izango ziren urte gatazkatsuetara igaro baitzen. Aldi luze horretako urte gehienetan (aldi feudal goiztiarrean, 1185-1573), ezkortasuna eta etsipena nagusitu ziren, Japonian jaun feudalen arteko lehiak eta norgehiagokak egon baitziren non-nahi, eta jaun horiek borrokan aritzen baitziren lurra eta boterea eskuratzeko. Aldi Feudal goiztiarrean, militarren mailak izan zuen nagusitasuna, *samuraiek*, alegia, horiek armekin babesten baitzituzten lursail zabaleko jabetzak. Era berean, garai horretan, erlijioa ere sakon aldatu zen, alde batetik, herri xeheak Lur Aratzeko sekta budistak onartu zituelako (*Jodo*, *Jodo-shin* eta *Ji*) eta, bestetik, *zen* izeneko sekta budista sartu zelako Japoniara eta onespen handia jaso zuelako militarren artean.

Borroka ikaragarriak izan ziren Taira eta Minamoto klanen artean, eta, azkenean, Minamoto Yoritomok (1147-1199) behin betiko garaitu zituen aurkariak. Minamotok Japoniako historiako aldi berri bati eman zion hasiera, Kamakuran kokatu zuen diktadura militarren egoitza (*bakufu*-a), eta bera izan zen diktadura

1 P. Muñoz Cascajón in García Vega... [et al.] 1999, 2. libk. (Japón), 119. or.

2 Mason 1993, 147. or.

horretako lehen *shoguna*, alegia, lehen jeneral diktadorea. Teorian, militarren mugimendua enperadorearen armada ofiziala zen. Alabaina, azken batean, buruzagi gorena *shoguna* zen, enperadorea bera eta gorte guttia baitzituen bere agindupean. Horrelaxe hasi zen Aldi Feudala, hau da, Japoniako Erdi Aroaren bereizgarria den aldia. Alde batean, Kyoto zegoen, Japoniako hiriburu baketsua eta artistikoa zena, Inperioko gortearren egoitza eta kultura-aldetik gero eta garatuago zegoena. Beste aldean, aldiz, Kamakura zegoen, alegia, benetako hiriburua eta hiriburu militarra zena, Minamoto Yoritomoren eta haren indar militarren egoitza ere bazena.

Minamoto Yoritomoren semeek ez zuten jakin beren aitaren nagusitasunari eusten, eta biak hil zituzten XIII. mendearen hasieran. Horren ondoren, nahasmenduz eta larritasunez beteriko aldi bat izan zen. Orduantxe, mongoliarrek Japoniako uharteak indarrez hartzen ahalegindu ziren, baina, ia dena galduta zegoela ematen zuenean, «jainkoen haize» batek (*kamikaze* izenekoak) etsaien ontziteria hondoratu zuen. Horren ondorioz, Japonia garaiezina zela zioen sinesmena sendotuta atera zen, inondik ere jainkoak alde zituztelako; eta, harrez geroztik, shintoismoaren espiritu nazionalak garrantzi izugarria hartu zuen berriro.

Japoniako *samurai*en espiritua

Horrelakoxea zen, bada, Erdi Aroko urte haietan Japonian zegoen gerra-giroa. Hargatik, inguruabar horietan, *samurai*aren irudia [1. ir.] indar handiz agertu zen, bere indar mistiko guztiaz. *Samurai*a Japoniako zaldun militarren eredia da, bere giroari dagozkion ezaugarri guztiak irudikatzen dituen. Hitzez hitz, *samurai* hitzak «beste baten zerbitzuan dagoena» esan nahi du. Era berean, *bushi* izenez deitzen zaio: pertsonaia militarra. Oro har, *samurai* hitzarekin izendatzen zaie Aro Modernoaren aurreko Japonian izan ziren gerlari hautatuak eta bikainak. Gerlari horiek Japoniako probintziarik xeheenetan azaldu ziren X. mendearen hasieran, eta, denboraren poderioz, herrialdea gobernatu zuen klasea izatera iritsi ziren. Hain zuzen XII. mendetik Meiji enperadorearen Errestaurazioa arte 1868. urtean zuzendu zuten herrialdea. *Samurai*ak azaldu ziren, batez ere, Kyotoko gobernu nagusia gainbehera erori zenean: gobernu hori enperadorearen agindupean zeuden gortesauak kontrolatzen zuten, probintzietan administrazioa era egokian zuzentzeko. *Samurai*ak asko aritu ziren bigarren mailako ofizial gisa, eta haien esku utzi zen probintziako gobernua; era berean, funtzionarioak izan ziren *shoen* deitutakoetan –gortesauen estatu pribatuetan– eta erlijio instituzioetan.

Lehenbiziko *bushidanak*, hau da, gerlari-taldeak, familiako erakundeak izan ziren, ahaideen artean hautatutako gizonen eratu zituzten unitate militarrek. Alabaina, XI. mendea iritsi aurretik, *bushidanak* unitate iraunkorragoetan antolatu ziren, gerlari buruzagien eta menpekoen arteko loturen bidez ondo eratutako unitateetan. Unitate horiek ez ziren ezinbestez ahaide-loturen bidez eratu behar, baina belaunaldiz belaunaldi iraun zuten jaunen eta menpekoen artean. *Samurai* mailaren buruzagitza, gehienbat, Inperioko familiaren ondorengoak ziren pertsonen hartu zuten beren gain.

Aro feudaleko Europaren antzekoa zen gizarte hartan, lurra lantzen zuten nekazariak beren errenten puska bat eman behar zieten *samurai*ei. Hauek familiako buruzagiak bezalakoak baitziren eta nekazariak haien mende baitzeuden. Era horretan, *samurai*ak gero eta botere gehiago eskuratzen joan ziren, eta beren agindupean zeuden nekazariak beren zerbitzuean ere bazeuden. Inguruabar horiek bere horretan iraun zuten luzaro, eta gatazka zibil ugari izan ziren tartean. Azkenean, XVI. mendearen hasieran egoera hori aldatu egin zen, maila berri bat agertu baitzen *samurai*en artean: *daimyo* izenekoak. Maila berri honetakoek Japoniako lurralde izugarri zabalak zituzten beren mende, eta elkarren artean aritzen ziren borrokan herrialde osoa agintari bakar baten azpian bateratzeko asmoz³. Azkenean, Japonia osoa bateratzeko asmo hori hainbat *daimyoren* agintepaan lortu zen; honako hauek izan ziren *daimyo* horiek: Oda Nobunaga, Toyotomi Hideyoshi

3 Gai honen gaineko deskribapen sakona jasotzeko, ikus Shimizu 1988.



© Babestutako materiala

1. Jidama (?)
Raikô heroiaren kondaira, 1851
 Tinta paperean. 28,2 x 636,6 cm (*emaki*)
 Bilboko Arte Eder Museoa
 Inb. zenb. 82/740
 Xehetasuna

eta Tokugawa Ieyasu. XVI. mendearen bukaeran, *samurai*ek egoitza-gazteluetan bizi behar zuten nahitaez, eta nekazariak, berriz, ezin zuten inolaz ere alorretatik kanpo kokatu.

Tokugawa aroan (1603-1867), herrialde osoan bakea nagusi izatea lortu zen. Bazirudien *samurai*en maila bere azkenetan zegoela, *shogun*aren aginpide erabatekoaren mende baitzegoen. Beharbada erreakzio idealista samar baten gisa, orduantxe osatu zuten *Bushido* izenekoa, hau da, militarren kodea: Japoniako *samurai*en pentsamoldea eta bizimoldea biltzen zituen kodea⁴.

Japoniako *Bushido*a

Bushido izenak «*samurai*en bidea» esan nahi du. Ohorezko kode bat da; *samurai* guztiek zorrotz bete behar dute bizitza osoan zehar nahitaez, eta horretara egokitu behar dute beren jokaera. *Samurai*ei eskatzen zaizkien bertute eta ezaugarri nagusiak honako hauek dira: leialtasuna, ausardia, egitasuna, zintzotasuna eta hiltzeko prest egotea ohorea zaintze aldera. Japoniar gehienentzat, *Bushido*a bizitzako eta hezkuntza moraleko arau baten moduko zera bat da, erlijioiko beste printzipio batzuk ordezkatzeko dituen eta, azken batean, «Japoniako arima» eratzen du⁵.

Nitobe Inazo irakaslea izan zen XX. mendearen hasieran Japoniako *Bushido*a Mendebaldeko kulturakoei azalduta argitaratu eman zuen lehena⁶. Aski da Inazok bere lanean aipatzen dituen kapituluaren zerrenda egitea, bizitzako arau honen edukiaz eta *samurai* guztien arimaz ondo ohartzeko:

4 1941. urtean, espainieraz eman zen argitaratu liburu hau: *El Bushido. El alma del Japón* (Nitobe, 1941). Millán Astray jeneralak itzuli zuen frantsesetik.

5 Nitobe 1969, XI. or.

6 *Ibid.*, VII eta VIII. or.

Bushidoa, sistema etiko bat.

Bushidoaren jatorria.

Zuzentasuna edo justizia.

Ausardia, ausardiaren espiritua eta ezustekoak jasaten jakiteko espiritua.

Borondate ona, minaren aurrean dagoen sentimendua.

Hezkuntza.

Leialtasuna eta zintzotasuna.

Ohorea.

Leial izateko betebeharra.

Samurai baten hezkuntza eta prestakuntza.

Norberaren burua menderatzea.

Suizidioa eta ordaintzaren ezarpena.

Ezpata, samuraiaren arima.

Emakumearen prestakuntza eta tokia.

Bushidoaren eragina.

Bizirik al dago oraindik *Bushidoa*?

Bushidoaren etorkizuna⁷.

Aski da izenburu horiek irakurtzea, berehala ohartzeko *Bushidoa* bizitzako benetako arau bat dela, eta eragin bizia duela leialtasunez eta irmotasunez betetzen duten pertsona guztiengan. Zalantzarik gabe, horrela jokatzen zuten *samurai*ek. Izan ere, *samurai*en mailakoak ez ziren japoniarren baitan ere, bizitzeko edo jokatzekeko molde honek eragin ikaragarria zuen. Are gehiago, nire ustez, *Bushidoak* gizarte-mailak gainditu ditu, eta, azkenean, arrasto berezi bat utzi du japoniar guztien baitan. Edo, bestela esanda, *Bushidoa* japoniar guztien izaeraren adierazpidea da. Une jakin batean bizitzeko arau horren gisa bildu zen, baina, alde askotan, japoniarrek betidanik izan duten idiosinkrasia berezi horren isla argia izan da. Hori egiaztatzen duen testigantza San Frantzisko Xabierren eskuan dugu, berak ezaugarri bereziak aurkitu baitzituen japoniarren baitan, lehenago ebanjelizatu zituen beste herrietan inondik ere aurkitu ez zituen ezaugarriak. Japoniari buruzko *Karta Magnan* aditzera eman zituen (1549. urteko azaroaren 5ean): berak bertatik bertara zuzenean ezagutu zituen XVI. mendeko japoniarrengan aurkitu zituen ezaugarri ugari askoz geroago *Bushidoan* deskribatu diren ezaugarri horietan ziren⁸.

Ezpata japoniarra

Arreta berezia jarriko dugu ezpata, seguru asko bera baita Japoniako zaldunen espirituaren ikurrik adierazgarriena. Antzina-antzinatik, ezpatak lotura estua izan du militarren mailekin eta, batez ere, *samurai*ekin [2. ir.]. Areago, Japoniako mitologian, ezpata aipatzen da hainbat aldiz. Aipamenik ospetsuenak aditzera ematen du nola Eguzkiaren jainkosak, alegia, Amaterasu Oomikamik, hiru opari egin zizkion bere ilobari, Nishi-no-Mikoto, eta hiru gauza horien artean ezpata bat zegoen: *Yata-no-Kagami* (ispilu sakratua), *Murakumo-no-Tsurugi* (ezpata sakratua) eta *Yasakani-no-Magatana* (bitxi sakratua). Hiru altxor horiek enperadore baten eskuetatik beste enperadore baten eskuetara igaro dira gaur egunera iritsi arte⁹.

7 Ibid., 134. or.

8 Moreno 1952, 287.-290. or.

9 Gai hau sakonago aztertzeke, ikus Picken 1980. Eta, batez ere, Obayashi 1977.



2. *Suzuribako* (idazketarako kutxa) japoniar armadurarekin
XIX. mendearen amaiera-XX. mendearen hasiera
Egur lakatua. 4,3 x 16,9 x 21,1 cm
Bilboko Arte Eder Museoa
Inb. zenb. 82/1022

Japonian oso antzinatek egin izan dira ezpatak, jaun handien hilobietan agertzen baitira, baita *haniwa* irudietan ere. Irudi horiek ezpatak daramatzaten soldaduak irudikatzen dituzte eta Kofun aldiko hilobi zaharretan (c. 250-522) aurkitu dituzte. Japoniako ezpaten itxura garai hartan Europan eta Egipton zeuden ezpaten modukoa zen. Ezpatarik ederrenak Kamakura aldian egin zituzten (1185-1333). G. Sanson japonologistak honelaxe dio:

Ezpaten indarra eta ahoa ikusita, ezpatak ekoizteko prozesua hain izan zen teknikoa, non XIII. mendeko ezpata japoniarrak –eta lehenagokoak ere bai– askoz ere kalitate hobegokoak baitziren munduko beste tokietan egiten ziren ezpatak baino¹⁰.

Masamune Nyudo da Japonian izan den ezpata-egilerik handiena, eta Kamakura aldian bizi izan zen. Ezpatak egiteko ekoizpena garai hartako ogibiderik nobleenetako bat zen, eta teknika horrek zituen misterioak gurasoengandik semeengana igarotzen ziren. Ezpatak egiteko unea ia errito sakratutzat hartzen zuten, eta, hala, beraz, ezpatak egin aurretik, artistak garbikuntza moduko prozesu bat gainditu behar zuten. Ezpatak egiten zituen artistak tatxarik gabeko gizona izan behar zuten, eta bere gogo osoa jarri behar zuten langintza horretan. Bestalde, jendeak uste zuten artistak, ezpata egiten zuten bitartean, bihotzean pentsamendu txarrak baldin bazituen, ezpata horren ahoa sekula ez zela baliagarria izango erabiliko zuenarentzat. Hortaz, ezpata garbitasunaren eta justiziaren ikurra da. Erdi Aroan, ezin zuten ezpata eraman *samurai*en mailatik beherakoa zen inork: zuzentasunaren eta nobleziaren ikurra zen.

Katana, hau da, ezpata japoniarra [3. ir.], hainbat tamainatakoa izan daiteke, baina sarritan ez du 30 zentimetrotik gora jotzen: horixe da, izan ere, *seppukua* edo *harakiri*a egiteko erabiltzen dena. Ezpatarik luzeenari *tachi* esaten zaio; 60 cm-koa izaten da, baina, batzuetan, 90 cm-koa ere izan daiteke. Daga txikiari *kaiken* esaten zaio, eta horixe da Aro Feudaletan andreak erabiltzen zutena.

Erdi Aroko japoniar batentzat, ezpata objekturik sakratuena zen; bestalde, samurai batentzat, ezpataren gainean promes egitea zin erabatekoa egitea zen, hain zuzen, heriotzak bakarrik hautsi ahal izango zuten zina egitea. Ezpata ezinbestekotzat jotzen zen etsaia menderatu ahal izateko, eta, horrez gain, justiziaren ikurra zen eta norberaren jabetzako tresna ere bazen. Garai batean, XIV. eta XV. mendeetan, Japoniatik Txinara edo beste herrialde batzuetara esportatu zitekeen objekturik baliotsuenetako bat izan zen; eta, gainera, Ekialdeko zaldun guztiek ikaragarriko estimua zieten Japoniako ezpatei.

¹⁰ Hemen aipatzen da: Bush 1965, 345.-346. or.



3. Ezpata japoniarra

Bushido kode moralaren arabera, ezpata boterearen eta ausardiaren ikurra zen. *Samuraiak* txiki-txikitatik ikasten zuen ezpata erabiltzen. Bost urterekin, *samurai* gerlariaren jantzia jartzen zioten, lanbide militarren eskubideak irakasteari ekiten zioten, eta, hala, benetako ezpata bat zintzilikatzen zioten gerritik, ordura arte eramandako jolasezko ezpataren tokian: inondik ere, une hori guztiz garrantzitsua zen haren bizitzan. Lehenbiziko zeremonia horren ondoren -*adoptio per arma* horren ostean-, *samuraiak* ezin zuen aitaren etxetik atera bere estatusaren bereizgarri horiek eraman gabe; dena dela, ezpataren orde, urre koloreko egurrezko sastakai bat eramaten zuen. Handik urte gutxira, gazteak benetako ezpata eramaten zuen, eta egurrezko eta harrizko atalak kolpatzen zituen harekin. Hamabost urterekin, askatasun osoz erabili ahal zuen ezpata. Tresna arriskutsu horren jabea zenez, berezko errespetuaren zentzua eta erantzukizuna zituen: gerritik zintzilikatuta zuena bere bihotz barruan zuenaren ikur bat zen, hau da, leialtasunaren eta ohorearen sentimenduaren ikurra. Beti zeramatzan aldean bi ezpatak, luzea (*katana*) eta laburra (*wakizashi*). Etxera iristean, gelan, lehentasunezko toki batean uzten zituen, eta, gauez, burkoaren alboan paratzen zituen. Horrela, bada, ezpatak *samuraiaren* lagunik onenak ziren.

Halako objektu ohoragarria lagun hurkoa eta banaezina izango zen txiki-txikitatik *samurai*entzat. Hargatik, Japonian, ezpata kultuko objektutzat hartzen zuten ia. Ezpatak egiten zituzten artistak, lanerako prest egoteko, otoitz- eta garbikuntza-egintza bat egiten zuten lehenbizi:

«Artisauak sutegiaren eta altzairuaren esku uzten zituen bere arima eta espiritua»¹¹, Nitobe Inazoren esanetan. Langintza horren emaitza, bada, artelan edo lan tekniko bat baino zerbait gehiago zen: bere arimaren puska bat ere bazen.

Tsuba, ezpata japoniarren artean

Tsuba ezpata-babesa da, hau da, kirtena ezpata-ahotik bereizten duen zatia, ezpataren kirtenetik hurbilen dagoena; ezpataren esku-babesa, alegia. Hortaz, *tsuba*, «ezpatei eta arma zuriei kirtenaren ondoan ezartzen zaien babesa» da¹². Japoniako ezpatan apaingarri gehien duen zatia da; hor, familiako armarriak zizelkatu ohi dira, eta, batzuetan, apaintzeko baizik ez diren motiboak ere bai. Hala, azkenean, *tsuba* aleak benetako artelanak dira.

Tsubaren formarik ohikoena biribila da, baina beste forma batzuk ere izaten ditu, batez ere XVIII. mendetik aurrera egindakoek. Formarik ohikoena *aoitsuba* izenekoa da, eta honelakoa da: azalera biribildu bat, ezpataren xafla zeharkatzen duen Erdiko zuloaren alde banatan zulo txo bat duena. Azalera oso leunduta egoten da, harribitxi bat emateraino ia; efektu horri *ishime* esaten zaio. Beste batzuetan, azalera apaingarriak ditu, mailukadaz zizelkatu direnak (*tsuchime*); edo, bestela, guztiz leunduta dago, eta beste metal batzuen inskruzazioak ditu (*zogan*). *Tsuba* alerik zaharrenetan bereziki, batzuetan apaingarriak metalean pikatutako janguneak dira (*sukashibori*), eta animalia, zuhaitz, lore edo horrelakoren baten irudia nabarmentzen dute, benetako filigrana-lan batean. *Tsuba* aleek dituzten dekorazio-formei erreparatzen badiegu, eskola desberdinak sumatuko ditugu, bai eta *tsubak* egin zituzten artista jakinen estilo berezia ere. Japoniako Erdi Aroan hasi ziren egiten, baina balio artistiko gehien duten *tsuba* aleak XVII. eta XIX. mendeen artean egin zituztenak dira¹³.

¹¹ Nitobe 1969, 134. or.

¹² Ikus *Diccionario de la Real Academia Española*, «guarnición» hitzean.

¹³ Japan : an illustrated encyclopedia... 1993, 1.627 or.

Federico Torralba irakasleak hauxe esaten du, Bilboko Arte Eder Museoa gorderik dauden eta arte japoniarri buruzkoak diren ohar argitaragabe batzuetan:

«Tsubak» egiteko lana Japoniako oso arte berezia da, eta metalaren artista asko lan espezializatu horretan aritu ziren, hain zuzen, «kinko» izena jasotzen dutenak. Artista horiek obra delikatu horietan espezializatuta zeuden errege-urregileak ziren eta, maiz, beren abileziaz harropuzturik, aleak sinatzen zituzten. Beste batzuetan, berriz, artistak zaleak ziren eta ez ziren iristen maisu handien kalitatea izatera. Sinatuta eta dokumentatuta dauden «tsubak» gorde dira, Kamakura Alditik hasita; hala ere, gaur egungo bildumak osatzen dituzten «tsuba» gehienak XVIII. eta XIX. mende bitartekoak dira, eta XX. mendekoak ere badaude. Dena dela, bildumagileei esker, «tsuba», gaur egun, artelan bat da¹⁴.

Tsuba aleek dituzten dekorazio-motiboak era askotakoak eta aberastasun handikoak dira, eta metala lantze-ko lana ere bai, batzuetan gehiago edo gutxiago pikatzen baita. Batzuetan, metal-mota desberdinen inkrustazioak agertzen dira, eta era askotako zizelkatze-moldeak ere bai. Sarritan, dekorazioko motiboek balio sinbolikoa dute, eta, maiz, zerikusia dute *tsuba* eta *mona* –famiariaren nobleziazko armarrria– daramatzen ezpataren jabearekin. *Samurai* kristauak ikur kristauak jartzen zituzten, beren fedea erakuste aldera: gehienetan, gurutzea agertzen da¹⁵.

Tsubak egiteko, sarritan, metaleen aleazio desberdinak erabiltzen zituzten, eta, horren ondorioz, era askotako tonalitateak izaten zituzten eta edertasun berezia ere bai:

Gehien erabiltzen diren metalak brontzea, altzairua, kobrea, zilarra eta urrea dira, baina sekula ez egoera puruan: «shakudo», kobrea eta urrea, urdin eta beltz belusatuaren arteko tonuekin; «shibuichi», kobrea eta zilarra, tonu grisekin, edo «sentoku», kobrea, zinka eta eztainua, tonu horiztekin¹⁶.

Bilboko Arte Eder Museoko ekialdeko artearen bildumari Palacio Bilduma esaten zaio, bilduma dohaintzan eman zuen pertsonaren izena dela-eta. Bildumak 37 *tsubaren* aukeraketa eder-ederra du. Beharbada, Espainian gorderik dauden bilduma guztien artean osatuena eta Europa osoko bildumarik onenetakoa izango da. Nire ustez, Bilboko museoa bilduma hau bakarrik alderatu dezakegu Genevan (Suitza) dagoenarekin, Baur Bilduman dagoenarekin, bilduma horrek dituen *tsuba* aleek dekorazio izugarri aberatsa baitute eta dekorazioko motiboak era askotakoak baitira¹⁷.

Luis Caeiro irakaslea aditua da Japoniako zaldunen munduarekin zerikusia duten gaietan; berak idatzitako lan batean, zehatz-mehatz deskribatzen ditu *tsuba* batek dituen atal guztiak:

Ale txiki honetan zati desberdin batzuk daude. «Mimi»: ertza. «Nakago hitsu ana»: erdiko zuloa. «Kogai hitsu ana»: hirusta itxurako zuloa, «kogai» aizto txikia bertan txertatzen da. «Kozuka hitsu ana»: zulo erdizirkularra, «kozuka» aizto txikia bertan txertatzen da. Bi zulo horien muturretan, metalezko bi atal daude, «seki gama», sendogarri gisa jarriak. «Ji»: erdiko zuloaren «nagako hitsu ana» eta ertzaren «mimi», artean dagoen azalera¹⁸.

Orain, Bilboko Arte Eder Museoa dauden *tsuba* guztiei erreparatuko diegu, hasi zaharrenekin, XVII. mendekoak direnekin, eta XIX. mendekoekin bukatu arte¹⁹.

14 Torralba 1985.

15 Badira motibo kristauak dituzten *tsuba* aleak Nagasakiko 26 Santu Martirien Museoko eta Tokioko Sophiako Unibertsitateko bildumetan. Bi toki horietan gorderik dauden guztiak, seguruena, XVI. mendearen bukaeran edo XVII. mendearen hasieran egingo zituzten, Hideyoshik kristautasuna debekatzeko 1614. urtean argitaratu zuen ediktuaren ondoren, *samurai* kristauak ez zituzten erabiliko edo ezkutatu zituzten zeinu kristau horiek ezpata-buruetan.

16 Bilbao 1998, 42. or.

17 Dunand 1977, 83.-95. or.

18 Caeiro 1992, 505.-506. or.

19 Bilboko Arte Ederren Museoa duen *tsuba* bildumaren berrikusitako azken katalogazioa 2014ko ekainaren 10etik irailaren 15tera egindako Arte japonés y japonismo. Museo de Bellas Artes de Bilbao erakusketaren katalogoan argitaratua izan da. Ikus Bilbao 2014, 148.-185. or. [argtz. oh.].

XVII. mendeko *tsubak*



XVII Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/994). Burdinazko *tsuba* bat da, 7 cm-ko diametroa duena. Dekorazioa zulatze-lana da, eta bi kurriloren irudiak agertzen dira: gorputza eta hegalak estilizatuagoak dituzte, eta buruek itxura errealistagoa dute, bata bestearen aurrez aurre paraturik. Kurriloa maiz agertzen da Japoniako artean, bizitza luzearen ikurra baita. *Tsuba* honetan argi ikusten da Japoniako artearen zentzu abstraktua, osagai bakan batzuen bidez iradokitzen baitu forma eta azken muturreraino eramaten baitu dekorazio-zentzu handiaren adierazpena. Seguru asko, *mon* baten irudikapena da, alegia, nobleziako blasoi baten irudia. Torralba irakaslearen arabera, Hirohashiren armarrria, eta Takeya, Toyama eta Toyooka familia nobleen blasoia da²⁰.

20 Torralba 1985.



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1035). Burdinazko *tsuba* bat da, 9 cm-ko diametroa duena. Honen dekorazioa ere erradiala da, eta krisantemo-lorea irudikatzen du zentzu abstraktuz beterik. Izan ere, krisantemoa da Japoniako Etxe Inperialaren lore sinbolikoa, betiere, hamasei lore-hosto baditu. Oro har, lasaitasunaren ikurra da. Gotoba enperadoreak (1185-1198) izugarri miresten zuen lore hori, eta, hala, bada, bere irudiak eginarazi zituen hainbat tokitan: bere *kimono*etan, soinkarietan, bai eta ezpatetan ere. Horren ondorioz, krisantemoa familia inperialaren ikur bilakatu zen, eta familiaren armarrria bera izatera iritsi zen²¹. *Tsuba* honetan, XVII. mendeko *tsuba* aleek zuten joera abstraktu berbera agertzen da, joera abstraktu horren adierazpen erabat japoniarra baita. Ale honen ertza urrez apaindutako itsas uhinen kiribilekin dekoratuta dago.

21 Okada 1941, 63. or.



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1010). *Tsuba* honen tamaina aurrekoen modukoa da, eta 8 cm-ko diametroa du. Burdinazkoa da eta urrezko apaingarriak ditu. Lan honek badu nolabaiteko erliebea. Banbuaren eta pinuaren ikurrak dituenez, *Oshogatsu*, hau da, Urte Berriaren apaingarriak irudikatu nahi izan direla uste da. Aurreko aleetan ez bezala, hemen ez da agertzen arte japoniarrean hain ohikoa den joera abstraktua; alabaina, dekorazioko osagaiak iradoki baizik ez dira egiten harmoniaz beteriko egituran.



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1050). *Tsuba* honek itxura berezia du: izkinak tolestuta ditu, eta, hala, lehen laukia zena oktogono bilakatu da (8,7 x 8,3 cm neurtzen du). Burdinazkoa da, eta atzealdean dragoi bat du hodei artean hegan, erliebean eginda; goialdean, berriz, paulonia-lore bat du urrez eta zilarrez eginda. Lore hau (japonieraz, *kiri* esaten zaio), antzina-antzinatik, oparotasunaren eta zori onaren ikurtzat jo da; izan ere, hala loreak nola bere hostoak, Inperioaren armarrian sartzeko hautatu diren loreak dira, krisantemoarekin batera. Muromachi aldian (1333-1573), enperadoreak paulonia-lorea zuen armarrira eman zion *shogunen* familiakoa zen Ashikaga familiari; era berean, horiek armarriri horixe eman zieten guduetan erakutsitako ausardiagatik nabarmendu ziren nobleei, ohore-ikur gisa. Geroago, *mon* hori Oda eta Toyotomi familiek erabili zuten, batez ere Toyotomi Hideyoshik²². Nobleziaren armarriri honek duen garrantzia ikusita, litekeena da *tsuba* hau Japoniako nobleziako familia batena izatea.

²² Ibid., 63.-64. or.



© Babestutako materiala

Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1003). Kobrez, letoiz eta burdinaz egindako *tsuba* hau, ziurrena, XVII. mendearen bukaerakoa edo XVIII. mendearen hasierakoa izango da. 7,4 x 7 cm neurtzen du, eta ia karratua da, baina izkinak pixka bat biribilduta ditu. Hala Azealdean, nola Aurrealdean, dekorazioa oso soila da; marra ia paralelo eta zentrokide batzuk besterik ez ditu. «Ehunzango» izenez ezagutzen den dekorazioko diseinu-motakoa da.



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/988). *Tsuba* hau burdinaz eginda dago, 8,7 cm-ko diametroa du, eta berezitasun hau du: *mon* edo familiako armarri batzuk ditu. Beharbada, horrek esan nahi du hainbat familia bateratu zirela, edo, agian, dekoratzeko apaingarriak direlako sartu dituzte, besterik gabe. Estiloa ikusita, beharbada Kaga probintziakoa zen Kaga Yoshiroren obra bat izango da; *mon-zukashi*²³ motaren ezaugarriak ditu.

23 Torralba 1985.



© Babestutako materialia

Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/997). *Tsuba* hau zirkularra da (7,3 cm-ko diametroa du), eta uhinak ditu ertzetan. Burdinaz eginda dago, eta landare-itxurako apaingarriak ditu, urre-kolorekoak. Hainbat zulo ditu, eta, hori dela-eta, ematen du pikatze-lan bat dela eta astuntasunik ez duela. Ziurrena, XVII. mendearen bukaerakoa edo XVIII. mendearen hasierakoa izango da.

XVIII. mendeko *tsubak*



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/993). *Tsuba* obalatu hau (8,6 x 8 cm) bilduma honetako alerik landue-netako bat da. Burdinazkoa da, eta urrezko, zilarrezko eta kobrezko apaingarriak ditu. Historia mitiko bat du erliebean irudikatuta, bi aldeetatik: paisaia eder bat ilargiaren argitan, eta, bertan, izaki mitologiko batzuk, *tengu* izenekoak, sudur izugarri handia eta hego gorriak dituztenak, *samurai* arropaz jantzita, goialdean hegan egiten duen beste pertsonaia baten (Minamoto Yoshitsune) begiradapean. Bi aldeak estaltzen dituen paisaia ikaragarri fina da; landareak kolore biziagoko metalez eginda daude, eta distira egiten dute dena bereganatzen duen ilargi-argiak ilundu duen giroan. Ezin da gehiago deskribatu holako toki txikian eta hain era ederrean.



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/989). Burdinazko *tsuba* honek (7,5 cm-ko diametrokoa) urrezko dekorazioa du bi aldeetan: azalera osoa estaltzen duten landare-adarrak, geriza-loreak eta tximeletak. Dekorazio soila da, baina, aldi berean, oso dotorea.



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1089). *Tsuba* hau ia zirkularra da (8,7 x 8,5 cm-ko diametrokoa), burdinaz eginda dago, eta urrezko eta bestelako metal-aleazioko apaingarriz dekoratuta dago. Dekorazioko motibo guztiak landareak dira, baina batzuen itxura mitxeleten modukoa da. Erliebezko ertz bat du eta horrek plater-itxura ematen dio.



© Babestutako materiala

Masahisa (inb. zenb. 82/1002). *Tsuba* honek 7,2 cm-ko diametroa du, eta egin zuen artistaren izena darma: «Masahisa, Musashin bizi zenean». Denboraren joanean, artelanak, eta *tsuba* aleak ere bai, sinatuta eta identifikatuta daude. Honako hau burdinazkoa da, eta urrezko dekorazioa du burdinaren gainean, hain zuzen, elkarren artean korapilatuta dauden berenjena batzuk ditu irudikatuta. Era berean, ertzen moldea dekoratuta dago, uhinak bezalako forma batzuk baititu, eta azaleran dauden zuloek ere apaingarriak dituzte.



Shigenobu (inb. zenb. 82/996). *Tsuba* batzuetan, dekorazioa pikatutako jangune irregularrek eratzen dute, eta honako hau horietako bat da. Burdinazkoa da, eta urrezko, kobrezko eta bestelako metalezko apaindurak ditu, hain zuzen, musker txiki baten eta landareen eta onddoen irudiak. *Tsuba* hau erabat berezia da; bertan, dekorazioa nabarmentzeko ahalegina egin da, pikatutako jangune irregularrak eta itxuragabetzeak eginez ertzean bertan. Hona neurriak: 7,5 x 7 cm-ko diametroa.



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1071). Jatorrizko *tsuba* honek 8,3 cm-ko diametroa du; txinerazko bost karaktere baizik ez ditu aurrealdean, eta atzealdean, aldiz, kirten luzeko haizemaile bat, hau da, agintaritzaren ikurra. Hori guztia kobrezko eta zilarrezko erliebean eginda dago, burdinaren gainean.



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1001). *Tsuba* hau XVIII. mendean egin zuten, eta 6,4 x 5,8 cm neurtzen du. Hainbat metalekin prestatutako aleazio batez eginda dago, eta dekorazioa urrezkoa da, erliebezkoa, eta landare batzuk eta tximeleta bat irudikatzen ditu. Dekorazioa oso soila da, eta, hala, ematen du XVIII. mendearen hasieran egiten zena dela.



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1028). XVIII. mende bukaerako *tsuba* hau zirkularra da, 7,9 cm-ko diametroa du, eta pikatutako jangune ugari ditu; horien gainean, bi lertxun daude, adarrez eta hostoz inguratuta. Alboko zuloa metalezko aleazio batekin estali da, eta gainean duen dekorazioko janguneekin guztiz pikatuta dagoen atal bat du. Egile batzuen ustez, gehiago landuta dauden *tsuba* hauek ez ziren egin ezpatekin erabiltzeko, baizik eta bilduma-ale gisa gordetzeko.



© Babestutako materiala



Joi (Norimoto) (inb. zenb. 82/400). Giza irudiz osatutako dekorazioa duten *tsuba* aleak ez dira batere ugariak. Hau horietako bat da. Itxura ia zirkularrekoa da (7 x 6,5 cm-koa), kobrez eta urrez eginda dago, eta, bertan, *zen* Kanzaneko monjeen eta Shinte adiskidearen irudiak daude grabatuta. Badago paisaia bat, baina iradoki baizik ez da egiten, goialdean ikusten diren zuhaitzetako adarrekin. Artistaren sinadura eta zigilua nekez irakurtzen dira. Joi 1701. eta 1761. urteen artean bizi izan zen, eta Matsumotokoa zen. Matsudairaren familiaren baitan lan egin zuen, eta Nara Toshinagaren dizipulua izan zen. Metalen aleazioak egiteko modu berriak eta metalezko obrak moldatzeko teknika berriak asmatu zituen²⁴. *Tsuba* hau XVIII. eta XIX. mendeen artekoa da, eta, bertan, benetan miresgarria da Kanzan monjearen begitartearen adierazpena, hain baita zaila hori metalean deskribatzea. Paisaian dagoen hutsunea *zen* artearen eragin zuzena da.

²⁴ Ibid., 90. or.



© Babestutako materiala

Kaneye (inb. zenb. 1066). *Tsuba* borobil hau 8,3 cm-ko diametrokoa da; burdinazkoa da, eta urrezko dekorazioko motibo batzuk ditu. Goi-erliebe bat du, eta, bertan, erromes bat atsedendia egiten ari da bidean, zuhaitz bat baizik ez duen paisaia soildu batean. Atzealdean ere paisaiako irudiak daude: aintzira bat, ia iradoki baizik egiten ez dena, txabola bat eta hegazti batzuk hegan. Artistaren sinadura argi ikusten da: «Kaneye, Fushimin, Yamashiro probintzian bizi zenean». Artista hau XVI. eta XVII. mendeen artean bizi izan zen, baina paisaiak egiteko zuen estiloak bizirik iraun zuen XIX. mendera arte, eta egiten ziren obrei bere sinadura gaineratzen zion. Estiloa eta teknika ikusita, *tsuba* hau beranduagoko lana dela ematen du.



Kunihiro (inb. zenb. 82/1042). Nire ustez, *tsuba* hau bildumako alerik ederrenetako bat da: burdinazkoa da, ez baitu bestelako metalik dekorazioan, erabat biribila da (8 cm-ko diametroa du), eta dekorazioa metalean pikatutako janguneak dira, hain zuzen, oso estilizatuak diren zortzi pinu. Horixe da dena, baina pinuen formak, *tsubaren* azalera kokatzeko banaketa asimetrikoa, eta haiek egitean gogoan izan den zentzu abstraktua aintzat hartuta, multzo oso hau japoniar ale peto-peto bat da. Sinaduran «Kunihiro, Musashin bizi zenean» jartzen du, eta, hori ikusita, ziurtasunez esan dezakegu XVIII. mende hasierako lana dela.



© Babestutako materiala

Kinai (inb. zenb. 82/1004). *Tsuba* hau 8,2 cm-ko diametrokoa da, eta pikatu diren janguneak dira bere dekorazioko atalik garrantzitsuena. Burdinazkoa da oso-osorik, eta duen dekorazioko motibo bakarra errefau bat da, bere hostoekin. Barazkiak eta haren hostoek zirkunferentzia ia biribila osatzen dute; inondik ere, hori oso xehetasun deskribatzailea da eta oso apaingarria ere bai. Sinaduran hauxe agertzen da: «Kinaik egin zuen, Echizenen bizi zela». Kinai *tsuba* egiten zuten artisten talde bat da; Fukuin, Echizengo probintzian zeuden. Haietako lehenak Ishikawa izena zuen eta 1681. urtean hil zen, baina haren jarraitzaileek *tsuba* egiten segitu zuten 1850. urtera arte.

XIX. mendeko *tsubak*



Yanagawa Naohara (inb. zenb. 82/1053). *Tsuba* hau guztiz apaingarria da, eta ziurrena bildumagileentzat egingo zuten, ez ezpatan erabiltzeko. Latoiz eginda dago eta 5,5 x 4,5 cm-ko neurria dauka. Dekorazioko motiboa dragoi bat da, zuloen inguruan hegan dabilena; eta argi eta garbi ikusten da *tsuba* egin zuen artistaren sinadura: «Yanagawa Naohara», XIX. mendekoa. Sen handia du dekoraziorako, eta pikatutako janguneak ikusita, badirudi lana arina dela, ez dela batere astuna.



© Babestutako materiala

Nyudo Soten (inb. zenb. 82/1070). *Tsuba* hau burdinazkoa da, eta urrezko dekorazioa du. Forma ia zirkularra da (8,5 x 8,2 cm), eta dekorazioa erliebe nabarmenean eginda dago, bi aldeetan. Gai nagusia fenix hegaztia da, hegan dabilela, eta inguruan urrean egindako landare-osagai batzuk ditu. Sinaduran hauxe agertzen da: «Nyudo Sotenek egin zuen, Hikonen bizi zenean». Artista hori Kyoton jaio zen, baina Hikoneko Kawakita familiak babestu zuen, eta, hala, bere estiloak sona handia hartu zuen leku horretan. Sarritan, irudi mitikoak hartzen zituen dekorazioko gai gisa.



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1052). *Tsuba* honen dekorazioa benetan ederra da. Burdinazkoa da eta urrezko detailtxo batzuk ditu. Dekorazioko gai nagusia pinu-adar handi bat da, zirkunferentzia alderik alde betetzen duena (8,3 cm-ko diametrokoa); eta janguneak ditu metalean pikatuta. Pinua bizitza luzearen ikurra da, eta maiz erabiltzen da dekorazioan Japoniako arteko objektuetan.



© Babestutako materiala

Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1054). *Tsuba* honen berezitasuna da dragoi bat dela dekorazioko osagai bakarra, eta dragoi horrek inguramenduko zirkunferentzia ia biribil osoa betetzen duela (7,8 x 7,5 cm). Metalaren zizelkadura ia ezin hobea da, eta pikatuta dauden jangune batzuk ditu *tsubaren* bi zuloen inguruan. Urrezko zigilu txiki bat dago, ia ezin irakur daitekeena. Dragoia maiz agertzen da Japoniako artean, eta, zalantzarik gabe, Txinaren eraginagatik agertzen da: zentzu onuragarria du, eta indarraren eta boterearen ikurra da. Duela lau mila urte baino gehiago hasi zen dekorazioko motibo gisa erabiltzen Txinan, eta esanahi gehien duen animalia da. Lau animalia mitikoetako bat da, qilin, dortoka eta fenix hegaztiarekin batera²⁵. Aberastasun sinboliko horren ondorioz, antzina-antzinatik hasi zen erabiltzen Japoniako artean. Batzuetan, *tsubaren* dekorazioan agertzen da.

25 Cervera 1997, 66. or.



© Babestutako materiala

Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1072). Burdinazko *tsuba* hau biribila da (7,2 cm-ko diametrokoa), eta uhin moduko formak ditu inguramenduko alde batzuetan. Itxura estilizatua du; dekorazioko gaia fenix hegaztia da, eta haren begiak urrezko inkrustazioak dira. Badirudi bilduman gordetzeko ale bat dela, eta ez ezpatan erabiltzekoa.



© Babestutako materiala

Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/990). *Tsuba* hau burdinaz eginda dago, urrezko apaingarriak ditu, eta ia zirkularra da (7 x 6,5 cm-koa). Dekorazio gisa, aurrealdean, barraskilo bat du, orkidea batekin, eta atzealdean, berriz, putzu txiki baten karela, garbikuntzak egiteko erabiltzen ziren putz horietako batena. Karelaren gainean, banuzko burruntzali bat dago, ura ateratzeko, halaxe agertzen baita beti te-etxeetako lorategietan. Badirudi ezinezkoa dela hainbeste kontu adieraztea dekorazioko hain osagai gutxi erabilita; izan ere, horixe da arte japoniarrak iradokitze duen indarra, hemen, *tsuba* baten azalera txikitxoan islatuta dagoena.



© Babestutako materiala

Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1065). Osagai gutxirekin gauza asko iradokitzeko abildade hori oster a ere ikus dezakegu *tsuba* honetan; burdinazkoa, zilarrezkoa eta kobrezkoa da (8 x 7,5 cm-koa). Aurrealdean, jakintsu txinatar bat dago grabatuta: *sho* bat, hau da, banbuzko flauta bat jotzen ari da, lagun bat ondoan duela, eta aintzira baten aldamenean daude, pinu baten eta zenbait landaretako adarren alboan, eta, bien bitartean, kurrilo bat doa hegan, miniaturako paisaian barrena. Azealdean, miniaturako beste paisaia bat dago: tenplu bat, landarez inguratutako aintzira baten ondoan; landareak zilarrezkoak eta urrezkoak dira. Gaia hain zehatz eta labur gauzatzea horrelako toki txikian –eta, maiz, iradoki baizik ez egitea– Japoniako artearen ezaugarrietako bat da, eta hemen edertasun handiz egin da.



© Babestutako materialia

Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/987). Tamaina txikiagoko *tsuba* hau (5,5 x 4,5 cm-koa) oso berezia da. Letoizkoa da, eta kobrezko eta urrezko inkrustazioak ditu. Obalatua da, eta goialdean *zen* gaia du grabatuta: Kanzan eta Shin-te monjeak hainbat jarduera egiten. Bikote hori oso ezaguna da sekta budista horretan; nolabait, lan intelektuala eta eskulana bateratu daitezkeela erakusten dute. Badirudi bilduman gordetzeko *tsuba* bat dela, eta ez ezpatan erabiltzekoa.



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1005). Berriz ere miniaturako deskribapen miresgarri baten aurrean gaude: *tsuba* honen aurrealdeko dekorazio-osagaia dragoi bat da, ur-uhinen eta hodeien artean dagoela. Azealdean itsasaldeko paisaia bat ikusten da: txalupa bat, harkaitz batetik ateratzen den zuhaitz baten azpian, eskuinaldean uhinak –iradoki baizik egiten ez direnak– eta kaio batzuk hegan. Hori guztia 7 x 6,6 cm-ko azaleran sartuta. Arte japoniarrak iradokitzeko duen gaitasuna benetan miresgarria da, eta, gainera, dekorazioko oso osagai gutxirekin lortzen du hori.



© Babestutako materiala



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/986). *Tsuba* hau benetan soila da: metalen aleazio batez eginda dago, eta oso dekorazio arina du: landare batzuk, urrez eginak. Tamaina 7 x 6,5 cm-koa da, eta pixka bat obalatua da; arraildurak ditu izkinetan, lau lobulu handi osatzen.



Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1011). *Tsuba* hau itxura obalatukoa da, eta uhin moduko formak ditu inguramenduan. Burdinazkoa da, eta hauek dira bere neurriak: 7,5 x 5,7 cm. Aurrealdeko dekorazioan urrezko krisantemoak eta hegan doan tximeleta bat agertzen dira, dena erliebean eginda; Azealdean, berriz, onddo batzuk daude ur-laster baten aldamenean. Paisaia hau, orobat, iradoki baizik ez da egiten.



© Babestutako materiala

Iwamoto Yasuhiro (inb. zenb. 82/991). *Tsuba* hau aski berezia da, giza irudiak baititu dekorazioan: tamaina txikiko azaleran (7,5 x 6,5 cm-koa baita), maisu budista bat ikusten da, dizipuluz inguratuta; multzo osoa goi-erliebean eginda dago. Irudietako aurpegien adierazpenak desberdinak dira; Azealdean, beste irudi bat agertzen da, Argitzapenaren Zuhaitzaren ondoan dagoela. Irudien inguruan, urrez egindako dekorazioko osagaiak daude.



© Babestutako materiala

Kakiemon (inb. zenb. 82/1067). *Tsuba* hau benetan miresgarria da, dena labur-labur adierazten baitu: Aurrealdean, goi-erliebean eginda, landa-ingurunekeo bazter bat ikusten da, aintzira baten ondoan eta mendien artean; Azealdean, berriz, arrantzale bat dago txalupan sartuta, aintzira batean, ilargiak estalitako paisaia batean. Paisaia osoa 8 x 7,5 cm-ko azalera batean dago deskribatuta. L.R.H. Smithek, British Museumeko Ekialdeko Antzinako gauzen kontserbatzaile zaharrak, hauxe idatzi zuen *tsuba* honi buruz:

Metalezko miniatura zoragarri hauek egin zituzten artistek beren talentua erabili zuten apaingarritz betetako loreontziak, plaka apaingarri handiak, animalien eta pertsonaien inkrustazioak eta bestelako objektuak egiteko, gero Mendebaldera esportatzeko, baina Palacio jaunak ez zituen eskuratu nahi izan. Aldiz, XVII., XVIII. eta XIX. mendeetako ezpaten apaingarrietan jarri zuen arreta, baina apaingarri horiek bakanagoak ziren. Irudi honetan «tsuba» ale ohiko eta benetan dotore bat ikus dezakegu (tsuba ezpaten esku-babesa da). Kobrezko eta urrezko aleazio batez eginda dago, hain zuzen, Shakudo izeneko aleazio batez, eta tratamendu berezia eman zaio azkenean kolore urdin-beltza izan dezan. Bertan, eszena bat dago grabatuta: ilargiaren argitan, mendiak eta aintzira bat, urrezko, zilarrezko eta kobrezko inkrustazio txikiz ziprztinduta. Japoniar batek izan ezik, inork ezin du gerlari baten atal bat dekoratu bakezko eszena klasiko bat irudikatuz! *Tsuba* hau Kajiemonek egin zuen, eta bera Umetadaren lerroko maisuen bosgarren belaunaldikoa zen. XIX. mendearen erdialdean egin zuen.²⁶

²⁶ Smith 1985, 92. or.



© Babestutako materiala

Kan-ishi Nomura Kanemobu (inb. zenb. 82/1069). *Tsuba* hau hainbat metalen aleazio batez eginda dago, urrezko, zilarrezko eta kobrezko aleazio batez (eta 7,2 x 6,8 cm-koa da). Aurrealdean, bi jakintsu txinatar daude, goi-erliebean eginda, paisaia menditsu baten aurrean; Azealdean, paisaia soil bat besterik ez dago. Ale honen alde batzuk pikatuta daude eta janguneak dituzte; beste batzuek, berriz, urrezko, zilarreko eta kobrezko inkrustazioak dituzte. Sinaduran hauxe agertzen da: «Kan-ishi Nomura Kanemobu, Hikonen bizi zela». Zehatz-mehatz landuta dago, eta, hala, bada, badirudi bilduman gordetzeko *tsuba* bat dela, eta ez ezpatan erabiltzekoa. Lan ederra da, metal mistoez egina.



© Babestutako materiala



Koken (inb. zenb. 82/1026). *Tsuba* hau ia karratua da (8,3 x 7,7 cm-koa), letoizkoa da, eta goi-erliebean egindako dekorazioa du: aurrealdean tximino bat dago zuhaitz batetik zintzilikatuta; atzealdean, zuhaitz beraren jarraipena dugu, eta zuhaitzaren azpian, karramarro bat. «Koken» sinadura agertzen da. Ez dago metalen langintzan aritzen den eta izen hori duen garai hartako artistarik, eta, beraz, Torralba irakaslearen ustez, beharbada Koken margolariari (1835-83) egindako aipu bat izango da; izan ere, margolari horren lanak eragin bizia izan zuen garai hartan, eta, hala, litekeena da Kokenen sinadura *tsuba* alean jartzea, Kokenen margo baten kopia zela aditzera emateko²⁷.

27 Torralba 1985, 92. or.



© Babestutako materiala

Yanagawa Mitsumasaren eskola (inb. zenb. 82/995). *Tsuba* hau ia zirkularra da (9 x 8,5 cm-koa), inguramendua lau lobulu handitan zatituta du, eta letoizkoa da. Erliebean egindako dekorazioa du, hala aurrealdean, nola atzealdean. Aurrealdean, txori bat dago, lotozko adar batean jarririk, aintzirako uhinei begira; atzealdean, berriz, lau loto-hosto erortzen ari dira aintziraren gainera. Edertasun bereziko *tsuba* bat da honako hau, bai diseinuagatik, bai hondoko eta dekorazioko koloreengatik.



Masachika (inb. zenb. 82/992). *Tsuba* hau zirkularra da (7,5 cm-ko diametrokoa), burdinaz eginda dago, eta astigar-hostoak irudikatzen dituzten urrezko janguneak eta apaingarriak ditu. Sinaduran hauxe agertzen da: «Masachikak egin zuen, Musashin bizi zela». Zaila da artista honen nortasuna ziurtasunez zehaztea; baina, bere estiloa ikusita, honako hau XIX. mende bukaerako ale berezi bat da, zalantzarik gabe.



© Babestutako materiala

Anonimoa japoniarra (inb. zenb. 82/1079). *Tsuba* hau XIX. mendearen bukaerakoa da. Kobrezkoa da, eta lau lobulu ditu, gutxi nabarmenduak (8,4 x 8,2 cm-koa). Dekorazio berbera dago aurrealdean eta atzealdean: peoniak dira, batzuk irekita eta beste batzuk lore-begiak. Ertzak ere lore irudiz dekoratuta daude. Dekorazioa lakaz eginda dago, eta urre-kolorekoa eta gorria da.

Bilboko Arte Eder Museoko *tsuba* bilduma oro har ikusita, honako hau esan dezakegu: salbuespen bakan batzuk alde batera utzita, XVII. mendeko *tsuba*en dekorazioan zentzu abstraktuagoa dago, XVIII. mendeko *tsuba* gehiago landuta daude eta haietan *tsuba* egin zuen artistaren izena agertzen hasten da, eta XIX. mendeko *tsubak*, azkenik, finagoak dira eta gehienek egilearen izena dute. Ziurrena, XVIII. mendetik aurrera, *tsuba* bilduman gordetzeko egiten hasiko ziren, eta ez bakarrik ezpatan erabiltzeko. *Tsuba* guztiak ikusita, benetan izugarria da hain azalera txikian gaia labur eta zehatz garatzeko egileek zuten abildadea eta, orobat, ale gehienen dekorazioak duen zentzu abstraktua. Gainera, dekoratzeko halako xede bat nabarmentzen da, beharbada mende horietan Japonian loratu zen Dekorazio Arteko Rimpa Eskolaren eragina dena. Hargatik, *tsuba* bilduma honetan, Japoniako arte osoak dituen funtsezko ezaugarriak aurkituko ditugu.

Goian esan dugunez, Bilboko Arte Eder Museoko *tsuba* bilduma hau Europan dagoen bildumarik onenetakoa da; are gehiago, Japonian dauden bildumarik onenekin parekatzeko modukoa dela ere esango nuke.

BIBLIOGRAFIA

Bilbao 1998

La Colección Palacio : arte japonés en el Museo de Bellas Artes de Bilbao. [Erak. kat., Bilbao, Bilboko Arte Ederren Museoa]. Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1998.

Bilbao 2014

Arte japonés y japonismo : Museo de Bellas Artes de Bilbao. [Erak. kat.]. Bilbao : Bilboko Arte Ederren Museo = Museo de Bellas Artes de Bilbao, 2014.

Bush 1965

Lewis Bush. *Japanalia.* Tokyo : Tokyo New Service, 1965.

Caeiro 1992

Luis Caeiro Izquierdo. *La cultura samurái : armas japonesas en las colecciones españolas.* Madrid : Editorial de la Universidad Complutense, 1992.

Cervera 1997

Isabel Cervera Fernández. *Arte y cultura en China : conceptos, materiales y términos de la A a la Z.* Barcelona : Ediciones del Serbal, 1997.

Dunand 1997

Frank Dunand. *The Baur Collection, Geneva.* Geneva : Banque Paribas ; Zurich : Swiss Institute for Art Research, 1997.

García Vega... [et al.] 1999

Blanca García Vega... [et al.]. *Grandes civilizaciones de la antigüedad.* Madrid : Grupo Unido de Proyectos y Operaciones, 1999 (10 libk.).

Japan : an illustrated encyclopedia... 1993

Japan : an illustrated encyclopedia. Tokyo : Kodansha ; New York : Distributed in the United States and Canada by Kodansha America, 1993.

Mason 1993

Penelope E. Mason. *History of Japanese art.* New York : Abrams, 1993.

Moreno 1952

P. Fernando María Moreno (zuz.). *Cartas y avisos espirituales de San Francisco Javier.* Madrid : Sapientia, 1952 (2. ed., zuz. eta hand.).

Nitobe 1941

Inazo Nitobe. *El Bushido : (el alma del Japón).* General Millán-Astray (itz.). Madrid : s.n., 1941 (Gráfs. Ibarra).

Nitobe 1969

—. *Bushido : the soul of Japan : an exposition of Japanese thought.* Rutland, Vt. : C. E. Tuttle, 1969.

Obayashi 1977

Taryo Obayashi. «The Origins of Japanese mythology», *Acta Asiática*, 31. zenb., 1977, 1.-23. or.

Okada 1941

Yuzuru Okada. *Japanese Family Crests.* Tokyo : Tokyo Board of Tourist Industry, Japanese Government Railways, 1941.

Picken 1980

Stuart D.B. Picken. *Shinto, Japan's Spiritual Roots.* Tokyo : Kodansha International, 1980.

Shimizu 1988

Yoshiaki Shimizu (arg.). *Japan : the shaping of the Daimyo culture, 1185-1868.* Washington, D.C. : National Gallery of Art, 1988.

Smith 1985

Laurence R. H. Smith. «El arte japonés en la colección Palacio del Museo de Bellas Artes de Bilbao», *Urtekaria 1984 : asterlanak, albistak = Anuario 1984 : estudios, crónicas.* Bilbao : Museo de Bellas Artes de Bilbao, 1985, 13.-25. or.

Torralba 1985

F. Torralba Soriano. *Catálogo de arte oriental en el Museo de Bellas Artes de Bilbao,* 1985 (argitaratu gabea).